

Kristautasuneko maitasunezko eta graziatzako harremanarekin kideatasunik badu bhakti-aren bideak. Gandhi-rengan eragin handia ukan zuen salbabide horrek.

Ik. Grazia; Debozioa; Hinduismoa.

Bhaktiyoga

Bhakti-a ikasbidea edo jaierazko salbabidea.

Karmayoga-ren eta jñanayoga-ren aldean bestelakoa.

Ik. Bhakti.

Bhikkhu

Palizko hitza; sanskritoz: bhiksu.

Monako budista. Hasiera batean eskeko gisa batetik bestera ibiltzen ziren bhikkhuak; baina gerora elkarte iraunkorrak edo *sangha-k eratu zituzten. *Ordenazioko erri-toaren bidez hasten du monakoak bere biziera berria.

Hiru *botu gordetzen ditu bhikkhuak: *kastitate, pobretasun eta barne-orekarena.

Ik. Monakotza; Eskekotasuna.

Biblia

Grezieratik dator izen hori, eta "liburuak" esan nahi du: Liburuetan liburuak bailira. Idazti santuak izena ere erabili izan da sarritan, bai hebraieraz eta bai grekoz eta latinez. Euskaraz, berriz, Idazteuna (idazti deuna) erabiltzen da, baita usario luzeagoz Liburu santuak edo Eskritura santua.

Juduek eta kristauak sakratutzat hartzen dituzten liburuak bilduma adierazten du Biblia hitzak. Horietan jasotzen eta biltzen omen da Jainkoaren egiazko errebelazioa; Jainkoak berak giza autoreei nolabait iradoki edo inspiratutzat dauzkate fededunek. Ik. Inspirazioa.

Erlijiozko adieraziaz gain, beste bi aldetatik ere ikusi behar da Bibliaren balioa. a) Literatur obren bilduma denez, antzinako Ekialde Hurbileko dokumentu idatzirik nagusia da; bertako liburu batzu lotsarik gabe sar daitezke munduko literatur obra nagusien artean. b) Kultur balio historikokiari begira, paregabeko eragina izan du Mendebaldeko zibilizazioan, batez ere *kristautasunaren bitartez.

Bederatzi mendetan zehar osotuz etorri zen Biblia, K.a. X. mendean hasi eta K.o. I. menderarte. Hiru urrats aztertu behar dira Bibliaren eraketan: a) Herri-tradizioa, b) liburuak idazkuntza, c) horien onarpena.

Herri-tradizioa. Neurri handi batez herri-literaturatzat har daiteke Biblia: hau da, liburuetan hautatu, idatzi eta finkatu baino lehen nolabait herri-tradizioan eta oroimenean bizi, landu eta garatu izan dira horko testuak. Israel Herriaren historiarekin eta lehen kristauen fedezko esperientziarekin batera sortuz eta mamituz etorri dira liburuak. Inguru historiko eta erlijiozko kolektibo horretan ikusi behar dira.

Liburuak idazkuntza. Bibliako liburu bakoitzak bere idazlea (edo idazleak) du (ditu); eta sarritan autorearen izenez izendatzen dira horiek, hain zuzen ere. Baina maiz lehen idazleak ez ditu orain ezagutzen ditugun bezala utzi; hark idatziaren gain, beste zatiak erantsi izan dituzte edota aldatetarik egin dituzte.

Elkartearen onarpena. Liburuak idaztean herri-tradiziotik aukera egin den bezala, Israel Herriaren historian eta lehen kristau-mendean zehar idatzi zituzten liburuak ere aukera egin zuten; aukera hori erlijio-elkartea bera joan da eginez, bere erlijiozko eta fedezko koherentzia eta osotasunaren arabera.

Idatzi horiek erabili izan ditu *elkar-teak erlijio-ospakizunetan edota erlijio-irakaskuntzan eta *katekesian; erabilera horretan aukera ere eginez joan da, batzuk elkartearen fede-adierazpen jatortzat onartuz, eta beste batzuk ez-jatortzat baztertuz, halako batean erabaki ofiziala etorri den arte, Bibliako liburuak zerranda ofiziala finkatzera. *Kanona deritza zerranda horri.

Juduek Jamnia herriko Kontzilioan erabaki zuten kanona, K.o. I. mendean azken aldirian, Hirurogeitamarrak izeneko grekozko itzulpenaren agertzen direnak oinarritzat harturik, baina horietako batzuk baztertuz. Kristauak itzulpen horretako denak onartu zituzten kanonikotzat, eta beste hainbat liburu, Kristoren ondoren eta kristau-elkartean idatziak ere bai.

XVI. mendean, katolikoek eta protestanteek arteko gatazkaren barruan, Eliza Katolikoak Trento-ko Kontzilioan finkatu zuen bere kanona, Jeronimo santuaren *Bulgata izeneko latinezko itzulpena oinarritzat harturik; protestanteek, berriz, juduen kanona onartu zuten Itun Zaharretik eta Bulgata-ko bat edo beste baztertu egin zituzten. Ik. Erreforma protestantea; Erreforma katolikoa.

Bi parte nagusitan banatzen dute Bibliako liburu-bilduma: Itun edo Testamentu Zaharra eta Itun edo Testamentu Berria. *Itun Zaharra K.a.tik idatzirik liburuak osotzen dute (katolikoek kanonaren arabera, 46 liburuak).

Bibli elkarteak

ru); *Itun Berria, ordea, K.o.go liburuek osotzen dute (27 liburu, kanon katolikoaren arabera). Dena dela, banaketa handi honek zera adierazten du: *Judaismoaren eta *kristautasunaren arteko lotura, eta kristautasuna judaismoaren jarraipentzat ikusten dutela kristauak.

Itun Zaharrekoak nahiz Berrikoak neurri oso ezberdineko liburuek dira --inoiz bitxia gerta daiteke liburuek deitzea ere, hain idazki txikitxoak bait dira horietako batzuk-- eta literatur jenero guztiz diferentetakoak ere bai. Ikuspegi honetatik begiratu, Itun Zaharrekoak lau motatan banatzen dituzte: historikoak, poetikoak, jakinduriazkoak eta profetikoak; Itun Berrikoak, berriz, *ebanjelioak eta gutunak edo epistolak; eta bi liburu berezi: *Apostoluen Eginak eta *Apokalipsia.

Biblia liburu bizia da fededunentzat. Horien *fedearen oinarria eta iturria denez, *elkartean irakurri eta adierazten dute; gizabanakoaren eta gizataldearen bizitzako argibide, kritikabide eta etengabeko galdebide izan nahi du. Erlijio-ospakizunetan ezezik, teologiazko gogoeta, ikerkuntza eta irakaskuntzaren iturri nagusi eta abiapuntu behinentzat erabiltzen dute, *exegesia eta hermeneutikaren gain.

Hiru hizkuntza erabili zituzten Biblia idaztean: Aramaiera, hebraiera eta greziera Itun Zaharrean, eta greziera bakarrik Itun Berrian. K.a. lehen menderako Itun Zahar osoaren grezierazko itzulpena egina zegoen, Hirurogeitamarrena izenekoa. Biblia osoaren latinezko itzulpen aurrena Jeronimo santuarena da, Bulgata (Vugata) izenekoa. Ekialdeko Eliza "nasionalek" ere beren hizkuntzetara itzuli zuten.

Protestanteak hasi ziren Biblia Mendebaldeko hizkuntza modernoetara itzultzen; Luter-ek berak eginitako alemanierazko itzulpenak garrantzi oso handia izan du, aleman hizkuntzaren eta literaturaren barruan. Eliza Katolikoa Bulgata-ri atxekirik jarraitu zaio luzaroan.

Euskarazko lehen itzulpen partziala ere protestante batena da, Joannes Leizarragarena: Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria, 1571n argitaratua. Gerora hainbat itzulpen osoak nahiz zatikakoak egin dira: Duvoisin, Uriarte, Olabide, Kerexeta, etab. Bidetan da Elizen arteko itzulpen ekumenikoa: Itun Berria argitaratua du.

Ik. Agerkundera; Liburu santuak; Liburu-erlijioa.

Paulo Agirrebaltzategi

Bibli elkarteak

Idazteuna edo Biblia zabaltzea eginkizuntzat duten erakunde protestanteak. Hau da nagusiena: British and Foreign Bible Society. Erakunde guztiok baturik daude Bibli Elkarte Bateratuak izenekoan.

Bibli teologia

Eskritura Santua aztertzen duten jakintzetako bat. Horrek duen doktrina azaltzen du sistematikoki; orokorrean idazleka, nahiz gaika egin daiteke azalpen sistematikoa.

Ik. Teologia biblikoa.

Bibliaren kristauak

William O'Bryan, predikulari metodistak, XIX. mendearen hasieran, Ebanjelioaren eza-gutzarako sorturiko mugimendua. 1815ean bere Eliza metodista laga egin behar izan zuen eta *elkarte berri bat eratu zuen, arrakasta handia eduki zuena. Ingalaterran, AEBetan, Kanadan eta Australian zabaldurik dago. Metodisten adar guztiak batean zituzten irakatsiak bildu zituen mugimendu berriak. Izaitez, 1907an, metodismoaren beste bi adarrek in bat egin, United Methodist Church sortu zuen.

Bibliolatria

Protestante batzuren artean Bibliari eman dioten eta oraindik ere ematen dioten *gurtza gehiegizkoa adierazten du.

Orokorki, beste erlijioetan ere gertatu ohi den antzeko fenomeno horrelaxe deitzen dute.

Ik. Liburu-erlijioa.

Bidalketa

Ik. Misioa.

Bidea

Bidearen sinboloa arruntenetakoa, hedatuenetakoa eta garrantzizkoenetakoa da erlijioen munduan.

Budismoan badago kontzeptu nagusi bat, marga hitzez adierazten dutena: orokorki erlijio bakoitzak markatzen duen bidea esan nahi du; *budismoa bera Budaren marga edo bidea da. Baina horren barruan hiru forma edo bizikera nabarmentzen dira, marga hitzarekin adierazten direnak: Karmamarga, jñanamarga eta bhaktimarga. Gauza beretsua adierazten du yana (=baliabidea, ibilgailua) hitzak budismoko bi korrante handiak (mahayana eta hinayana) ezaugarritzen dituenak. Ik. Mahayana budismoa; Hinayana budismoa.